

Hego Afrika, zertxobait hobeto

Eskozia 16-13 zen aurretik atsedenean, baina gero bost entsegu hartu zituen

Koldo Alduntzin / Cardiff
Berriemaile berezia

IGANDEAN amaitu zen Kopa-ko lehen jardunaldia multzo guztietan. Norgehiagokarik erakargarriena Murrayfield-en jokatu zuten Eskoziak eta Hego Afrikak (A Multzoa). Munduko txapeldunak (Hego Afrika) eta V Nazioetako Torneoko txapeldunak (Eskozia) neurtu zituzten indarrak, eta Springbooksak gailendu ziren 17 puntuko aldeaz: 29-46. Garaipenarekin lasaitasun pittin bat hartu zuten hego afrikarrek, final-laurdenetara zuzenenean sailkatze-ko txartela ziurtatu baitzuten hein handi batean; izan ere, ez dugu uste Espainia eta Uruguai ezustekoa emateko gai izango direnik.

Aipaturiko lasaitasun horren adierazgarri izan zen Malletek —Hego Afrikako entrenatzailea— partidaren amaierako prentsaurrekoan esandakoa: «Hiru Nazioetan astindu handi samarra hartu genuen hiru partida galduta, baina Eskozia menderatuta, konfiantza eta animo handiagorekin jardungo dugu aurrerantzean».

Murrayfield Estadioak 67.000 ikusle hartzen ditu, baina munduko txapeldunak etorri arren, ez zen bete, hainbat hutsune ikusi baike-nuen han eta hemen harmailetan. Gainera, ikusle asko Hego Afrikatik etorritakoak ziren. Neurketa espero bezain gogorra eta borrokatua izan zen, batez ere Hego Afrikak markagailuan aldea egin arte. Bigarren zatiko bi minututan gertatu zen hori; 19tik 21era hain zuen, Springbooksek bi entsegu egin baitzituzten izugarritzko jokoa egin-da.

Eskoziako Metcalfe gibel-koak izugarritzko presioa eginda lortu zuten eskoziarrek lehen zigor kolpea gau-zatzea, Loganen bidez. Hegal-ak 13 puntu egin zituen guz-



JEAN-PIERRE MULLER / EPA

Gary Armstrong kapitain eskoziarra, baloia jokatzen, Hego Afrikaren aurkako partiduan.

Aldaketek eragina izan zuten Springbooks-en

HEGO AFRIKAK aitzineko bi jokalarialdatu zituen bigarren zatiko zortzigarren minutuan: Le Roux harroina Os du Randten ordeztu, eta Otto Andrewsen ordeztu. Horiek biek de-zente indartu zuten Hego Afrikarren jokoa, eta nagusitzen hasi ziren aitzinean. Flecken entseguaren ostean (16-18) Springbooksek alfer-ra jarri zuten lanean, eta Le Roux zelairatu berriak entsegu egin zuen 19. minutuan, 20 me-

troko korrikaldia eginez. Ez da oso arrunta hain urrutitik harroin batek entsegu egitea, baina Le Roux izugarritzko zezenkoe da: 1,83 metro eta 122 kilo.

Segidan, eskoziar-rak zelai-rdian erasoan zirela, Towns-enden pasea Murrayk jaso ez, eta ziztu bizian joan zen Kayser hegala. Entsegu erabakigarria izan zen, 19-32 jarri baitziren, eta harroari ziren Springbooksek. Halere, 8 mi-nutu geroago Taitek,

Eskoziako erdiak, beste entsegu ikusgarri batekin erantzun zuen: 26-32. Azken hiru minutu-tuetan Eskozia aha-legindu zen erasoan, baina Hego Afrikako Venter eta Van der Westhuizenek entsegu bana egin zuten hiru minututan.

Oro har, Eskoziak ahal zuen guztia egin zuen, eta defentsa bizian oinarrituta, hautsi egin zuen Springbooksen eraso-a, jokaldi politak burutuz. Nolanahi ere, Hego Afrikak

merrezimenduz irabazi zuen, gehiago jokatu eta talde oso-agoa izan zelako. Guztira sei entsegu egin zituen. Arlo bat nabarmentzekotan, eskasa izango litza-teke, batez ere lehen zatian: Hego Afrikak hamar irabazi zituen —bi aurkariari lapurtuta— eta Eskoziak hiru.

Armstrong, Metcalfe, Simpson eta Logan izan ziren Eskoziaren jokalaririk onenak, eta Rossouw, Venter eta Skinstad Hego Afrikan.

tira jaurtiketekin. Lehen zatiko 23. minutua arte Hego Afrikak eraman zuen jokoa-ren zama, baina Eskoziak sarritan lapurtu zion baloia, grina handia jarrita.

Venter erdiak egin zuen

lehen entsegu Springbooksentzat, Armstrong-en plaka-jea gaingidituta. Jokaldia, Skinstad 3. lerroak eta Van der Westhuizen uztartze ediak egin zuten, horrek xiteraz eman zion baloia Ven-

terri. Handik 12 minutura Martin Leslie 3. lerro eskoziarrak aurreratu zuen Eskozia, Armstrongek korrikaldia egin ondoren. Atsedenera 16-13 heldu zen Esko-zia aurretik.

Samoa ere indartsu

Koldo Alduntzin

Lehen jardunaldia amaituta, kasik emaitza guztiak espero zirenak izan dira, Samoa-Japonia eta Frantzia-Fijirenak izan ezik. Espainia nahiko eskas aritu zen Uruguairen kontra, eta hego amerikarrek tinko jardun zuten aurrean: lau entsegu egin zituzten, eta hori bada zerbait.

Ingalaterrak era guztietako entseguak egin zizkion italiari (8). *The Independent* egunkariak «Ingalaterraren indar eutsiezina» erabili zuen goiburutzat partidaren berri emateko. Bestetik Wilkinson ingelesak 32 puntu egin zituen: errekorra. Zeelandarren aurka, Tongak gauza bat zuen buruan: defentsa eta defentsa; eta ez nola-nahikoa. Arlo hori ongi bete zuen, atsedenean soilik 16-9 baitziren; baina Lomuk 24-9koa ezarrita, zeelandarren festa hasi zen.

Frantziak uztartzeetan eta defentsan ondo jardun zuen, diziplina-rekin, baina Kanadari 13 puntuz soilik irabaztea ez da normala. Gainera, amerikarrek bi entsegu egin zituzten. Fijik 49 puntuko aldeaz irabaztea Namibiari normala da.

Samoa talde osoa erakutsi zuen japoniar gerlariaren aurka. Jokalari apartak ditu, eta erne ibiltzen ahal da Gales. Irlandak ez zuen arazorik izan EEBBak menderatzeko. Wood orpokatzailea izugarri ibili zen: lau entsegu. Australiak 9 entsegu egin zizkion Erruman-iar, baina huts franko egin zuten azkarregi jokatzegatik.

Sailkapenak

A Multzoa		B Multzoa		C Multzoa		D Multzoa		E Multzoa	
	J Pt. A. K.		J Pt. A. K.		J Pt. A. K.		J Pt. A. K.		J Pt. A. K.
1. Hego Afrika	1 3 46 29	1. Ingalaterra	1 3 67 7	1. Fiji	1 3 67 18	1. Samoa	1 3 43 9	1. Australia	1 3 57 9
2. Uruguai	1 3 27 15	2. Zeelanda B.	1 3 45 9	2. Frantzia	1 3 33 20	2. Gales	1 3 23 18	2. Irlanda	1 3 53 8
3. Espainia	1 1 15 27	3. Tonga	1 1 9 45	3. Kanada	1 1 20 33	3. Argentina	1 1 18 23	3. EEBBak	1 1 8 53
4. Eskozia	1 1 29 46	4. Italia	1 1 7 67	4. Namibia	1 1 18 67	4. Japonia	1 1 9 43	4. Errumania	1 1 9 57